

"Ferdinando Raffaelli, bonbardaketa zuzendu zuena, kondekoratu egin zuten"



Durangoko bonbardaketaren 85. urteurrenean, Jon Irabazabalek liburu berria kaleratu du Gerediaga elkarteagaz: 'Durango, 1937ko Martxoaren 31, bonbardaketa'. Historialari iurretarrak 2001ean kaleratu zuen bonbardaketa-ri buruzko bere lehenengo liburua. Ordutik hona ikerturikoa ere jaso du argitalpen berrian. • 2-3



Osasun sistema publikoa indartzea aldarri

Zornotza • Zornotza Osasun Publikoaren Alde plataforma herritarrak manifestazioa egingo du zapatuan, osasun sistema publikoa indartzea eskatzeko. Manifestazioa anbulatorio paretik irtengo da, 12:30ean. Osasun Sailatarako aurrekontuak %5,5etik %7ra eta Lehen Mailako Arretaren finantzaketa %15etik %25era igotzea eskatuko dute, besteak beste. • 10

Korrika handia egin eta gero, txikien txanda da orain

22. Korrika goizalde honetan pasatu da Durangaldetik. Milaka euskaltzalek irten dute kalera eguraldi txarrari aurre eginda. Hotz egin du. Euria egin du. Eta zer? Hiru urteko lozorroaren ostean, euskaltzaleek ezin gogotsuago hartu dute Korrika. Euskararen aldeko adierazpen sozialik handienak irribarrea atera digu eta hunkitu egin gaitu. Baina Donostiako helmuga urrun dagoenez oraindino, gaur eta datorren astean Korrika Txikiek zeharkatuko dituzte eskualdeko kaleak • 4



"Bonbardaketari buruz gaurkotutako argitalpen bat kaleratu gura genuen, herritar guztiek irakurtzeko modukoa"

Gerediaga elkarteak Irazabalen 'Durango, 1937ko Martxoaren 31, bonbardaketa' liburua salgai jarri du Durangaldeko liburu dendetan, liburutegietan, Arte eta Historia Museoa eta Elkarren online

DURANGO • JONE GUENETXEA

Jon Irazabal Agirrek (Iurreta, 1960) bizitza erdi darama Durangoko bonbardaketari buruz ikertzen. Gai honi buruz 2001ean kaleratu zuen bere lehenengo liburua. Harrezkero, ikerketa ildo berriei jarraitu die. Informazio gaurkotuagaz liburua kaleratu du.

Bonbardaketari buruzko bigarren liburua kaleratu duzu. Argitalpen honek zein ekarpen egiten du gertaera horren inguruan?

Lehenengo liburua 2001ean kaleratu genuen. Oraingoan bonbardaketari buruz gaurkotutako argitalpen bat kaleratu gura genuen, herritar guztiek irakurtzeko modukoa.

Bonbardaketari buruzko informazio berriaz gainera, zuzenketak ere egin dituzue.

50. urteurrenean, 1987an, erakusketa bat egin genuen Kalebarriako liburutegi zaharrean. Arrakasta handia izan zuen. Erakusketa horretarako film labur bat grabatu genuen testigantzekin. Filmoteka Nazionalean lorturiko irudiak ere bazituen. Erakusketa hartan, bonbardaketaren egileak alemanak izan zirela esan genuen. Alemanen hegazkinak ipini genituen maketa batean. Dokumentazio guztian *Frente del Norte* eta Gasteizko aireportua genituen ikerketagai. Baina, momentu batean, beste dokumentu batean *Frente Centro Soria* agertu zen. Konturatu ginen Soriatik irtendako hegazkinek Durango zein Madril bonbardatu zitzaizketela kokapenagaitik. Manipulazio historiko horretaz konturatu ginen eta italiarren dokumentazioa irakurtzen hasi ginen. Zalantza dut garai hartako Jaurlaritzak ba ote zekien italiarrek izan zirela. Sasoi hartan, italiarrek alemanen aginduetara zeuden. Baina hegazkin desberdinak ziren. Sasoi hartan, Batakanoaren bitartez, Jaurlaritza Bizkaiko arazoari konponbide bat bilatzen zebilen italiarrek. Beraz, Durangoko hilketak Ita-


liari leporatuz gero arazoa sortu zitekeen. Hortxe sortzen zait zalantza.

Azken urteotan, Italiako abiazioaren inguruan ikertu duzu.

2001etik lerro nagusiak ezagutzen dira. Nork planifikatu zuen, nork egin zuen... Hala ere, zehaztasunak falta ziren. Izen-abizenak behar ziren Durangoko Udalak kereila aurkezteko. Hor ikusi genuen dokumentazio ugari zegoela Durango bonbardatu zuen aire unitateari buruz. Abiadoreen eta euren agintarien izenak aurkitu genituen.

Zein iritzi duzu Italiako gobernuaren erantzukinaren inguruan? Kereilak ez du aurrera irten.

Erantzukizunen harira, Alemaniako gobernuak gutuna bidali zuen Gernikara, garai hartako alemanek egindakoaren inguruan barkamena eskatzeko. Alemaniak desnazifikazio prozesu bat egin zuen gerra ostean. Italian, Ferdinando Raffaelli izan zen Durangoko bonbardaketaren zuzendaria eta begira zer gertatu den beragaz. *Durangoko harakina* esaten diot nik. Durango, Dima, Galdakao eta beste hainbat herri bonbardatu zituen. Bere hegazkinaren kanpoko aldean, bonbardatzen zituen herriak eta datak idazten zituen. Liburuan hegazkin horren argazkia dago. Bera harro sentitzen zen. *Los caballeros del aire* esaten zieten. Abiadoreek ez zuten hildakorik ikusten. Raffaelli hau oso inbentorea zen. Lehenengo, dronekin esperimentatzen ibili zen. Bigarren Mundu Gerran, faxismoarentzat lanean jarraitu zuen. Gerraren ostean, armadan jarraitu zuen eta 1954tik 1958ra bitartean Fuerza Aerea itailarreko burua izan zen. Kondekoratu egin zuten Italian, Alemanian eta Espainian. Esperimentatzen zebiltzan. Idatzietan ikusten da euren esanetan Durangok, Gernikak eta Eibarrek Poloniako herrietako egiturekin antzekotasuna zutela. Hurrengo gerretarako prestatzen zebiltzan.



IÑAKI IRAZABAL

Konturatu ginen Soriatik irtendako hegazkinek Durango zein Madril bonbardatu zitzaizketela kokapenagaitik.

Liburuan bitxikeria ugari agertzen da. Picassorena, esate baterako.

Urte hauetan, bonbardaketak Euskal Herritik kanpora izan zuen oihartzuna aurkitu dugu. Frantzian, Ingalaterran, Norvegian... Bitxikeria legez ezagutu dugu 1937ko maiatzaren 1ean Parisen lehenengoz ez zela egunkaririk kaleratu, grebagaitik.

Baina Frantziako alderdi komunistako egunkariak liburuxka bat kaleratu zuen, Durangoko bonbardaketa salatzen zuena, eta manifestazio jendetsu horretan idatzi hori zabaldu zuten. Historialari batzuek diote Picassok liburuxka hori irakurri zuela egun horretan, eta maiatzaren 2an hasi zela Guernica margotzen. Lotura egon daitekeela diote Picassoren inspirazio horretan.

Azken ikerketa hilerriko hobi komunen ingurukoa da.

1988an film bat egin genuen eta, lurperatzaileari galdetuta, hildakoak non lurperatu zituzten esan zigun. Ez zitzaigun bururatu galdetzea ea han jarraitzen zuten. Prospekzioa egiterakoan konturatu gara orain ez daudela bertan. Bat panteoi batera eraman zutela konturatu gara, beste batek dio

bere aita hamar urtera atera zutela. Gune hori hamar urtera hutsitu ahal izan zuten. Udaletik familiei gutunak bidaltzen zizkieten, eta, beraz, posible da erantzun zuten familiekin prozesu hori egin izana eta gainerakoa hezurtegira eramatea. Udaleko artxiboan dagoen dokumentazioan begiratu beharko litzateke, jakinarazpenak bidali baziren kopia bat hantxe egon daitekeelako. Artxiboa lan hori egiteko dago. Gainera, udalak memoriarako espazio bat sortu gura du hilerrian, hobi komuneko 84 pertsonak oroitzeko. Gainera, kanposantuan kapera eta atzeko kanpaia daude, eztabaida sortu dutena. Hor udalak badu lan bat, globalki dena batu eta batasun bat emanda gerran hildakoen oroimenerako toki bat sortzeko.

360 graduko plataforma interaktiboa sortu dute Durangoko bonbardaketaren xehetasunak herritarrei eta turistei helarazteko

Plataforman dagoen bideo hatek zehatz-mehatz erakusten du bonbak zein puntutan eta zein ordenatan bota zituzten

DURANGO • ARITZ MALDONADO

Durangoko bonbardaketaren 85. urteurrena bete den honetan, udalak *Durango 360° Bonbardaketa isildua* plataforma interaktiboa aurkeztu du. Plataformak bonbardaketaren xehetasun guztiak jasotzen ditu ikus-entzunezkoen, audioen, testuen eta irudien bitartez. Bideoetariko batek bonbardaketa zelakoa izan zen simulatzen du. Andra Mariko elizaren kanpandoretik begirata, bonbak zein lekutan eta zein ordenatan bota zituzten azaltzen da bideoan. Plataformak udaleko Turismo Sailaren bitartez ikusi du argia, eta dagoeneko martxan dagoen *Aztarnak* ibilbidea osatuko du. Proiektuak hartzaile nagusi bi ditu: batetik, bonbardaketa zehatz-mehatz zelakoa izan zen

ez dakiten durangarrak, eta, bestetik, herria bisitatzea datozen turistak.

Bonbardaketa isildua

Gune digitalaren aurkezpena astelehenean egin zuten, Turismo Bulegoan, hezkuntza komunitateko, turismoaren sektoreko eta memoria elkarteetako kideekin. Ima Garrastatxu alkateak adierazi zuenez, “oso garrantzitsua da belaunaldi berriek Durangoko historia eta memoria historikoaren balioa ezagutzea, memorian, justizian eta konponketan oinarrituriko Durango eraikitzeak”. Bestalde, Neskutz Rodriguez turismo arloko zinegotziak adierazi zuen Durangokoa “bonbardaketa isildua” izan zela: “Min horretatik eta hamarkadetan isildutako arrasto

eta zauri sakonetatik sortu zitzaien proiektu hau egiteko ideia. Espero dugu plataforma berri hau baliagarria izatea herritarrek ger-

taturikoaren berri izan dezaten”. Udalak eta elkarteek berretsi dute justiziaren, egiaren eta erreparazioaren alde lan egingo dutela.



Plataforma interaktiboa turismo bulegoan aurkeztu dute.

Gaur egungo faxismoa aztertzeke berbaldia eskainiko dute Durangon, bihar

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Ernai gazte antolakundeak gaur egungo faxismoa aztertzeke dinamika hasiko du *Durango 1937-2022* izenburupean. Gazte erakundearen iritziz, gizartea “faxismoaren oldarraldi berri baten agertokian” dago, eskuin muturrak “agenda markatzeko gaitasuna” lortu duelako, eta zapatuan arratsalde osoko egitaraua egingo dute. 17:00etan berbaldia eskainiko dute Durangoko Musika Eskolan. Iñigo Etxezarretak, Iratxe Delgadok eta Andoni Olariagak mahai-ingurua egingo dute. Gero, 19:00etan, manifestazioa egingo dute, Andra Maritik hasita. Azkenik, 21:00etan, Dube, Hatxe eta Seletah Stepi (Band Sound) & Lagunaken kontzertuak egingo dira Sorginolan.



Martxoaren 31n lore eskaintza egin zuten Elorrión.

Bonbardaketako biktimak gogoan izan dituzte Elorrión

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

1937ko martxoaren 31n, Durangoz gainera, italiarrek Elorrio ere bonbardatu zuten, 8:30 inguruan. 1937an Aviazone Legionariako 213 zenbakidun eskuadrilla faxistak Elorrión egindako bonbardaketaren 85. urteurrena dela eta, Memoria Historikoaren Laumunarrieta 1937 Elkarteak, Elorrioko Udalagaz lankidetzan, ekitaldia egin du herrian. Parrokiako kanpaiak jo dituzte eta, horren ondoren, frankismoaren errepresioaren ondorioz hildako, zauritutako eta jazarritako herritar zibilen omenezko lore eskaintza egin dute.

Laumunarrieta elkarteak adierazi dute Elorrioko Memoria Historikoa lantzen jarraituko dutela. Batetik, 1936-1939 Memoria Historikoaren ibilbidea landuko dute, eta, bestetik, 1936ko gerrari buruzko informazio panelak ipiniko dituzte. Horrez gainera, gerra osteko diktadurako, hau da, 1945etik 1975era arteko mugimendu kultural, sindikal eta politikoari buruzko informazioa eta grabazioak biltzen dabiltzala azaldu dute. Eta herritarrei dei egin diete horretan laguntzeko. Horri buruzko informazioa eta testigantzak dituenak laumunaelorrio@gmail.com helbidera idatzita lagundu dezake.

m
Mondragon
Unibertsitatea

Gure irakasleen ahotan



“Dual eredu eta ikuspegi internazionala dira Mondragon Unibertsitateko myGADE graduaren ardatzak”

IZASKUN ALZOLA

Durango

Mondragon Unibertsitateko Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako (myGADE) Gradu Dual-ean irakasle eta Nazioarteko Harremanetako koordinazio taldeko kidea da.

Mundua asko aldatzen ari da, enpresa kudeaketan profilak beharko dituzte enpresek etorkizunera begira?

Bai, teknologia berriek, digitalizazioak, ekonomia globalak, jasagarritasuna eta gizarte erantzukizunarekiko sentsibiltateak enpresek desberdin erabakiak hartu eta jokatzeko eragin dute.

Zergatik eta zertarako DUAL eredu?

Estatuko Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan gradu bakarra gara, lau urteko esperientzia duala izateko aukera ematen duena. Dual ereduak ikasteko modu ezberdin bat eskaintzen dio ikasleari, askoz ere praktikoagoa, Gradua bukatzerakoan 4 urteko edo 2 urteko lan esperientzia izango duelarik.

Aurtengoa zuen myGADEko ikasle guztiek DUAL ereduaren ikasiko dute. Zein dira DUALean egongo diren bi ibilbideak?

Ditugun bi ibilbide DUALetan, unibertsitatea ez da ikasteko espazio bakarra izango, enpresa batean lan egingo baitute ikasle guztiek. Gradua amaitzean, 4 urteko edo 2 urteko lan esperientzia izango duzu aukeratutako DUAL ibilbidearen arabera. DUAL+ ibilbidea aukeratzeko badute esperientzia duala intentsitate handiago batekin biziko dute, 1. mailatik 4. mailara arte. Ibilbide DUALa aukeratzeko badute ikasketa enpresan 3. mailan hasiko da. Bi kasuetan Gradu Amaierako Proiektua enpresan burutuko dute.

Esperientzia internazionalak ere inoiz baino garrantzi handiago hartu du, nola gauzatzen da graduan?

Ikasturte guztietan atzerriko esperientzia ezberdinak bermatzen ditugu: 1. mailan Europara “Basque Companies abroad” programaren baitan, 2. mailan inter-campus erronka bat dago, atzerriko unibertsitateekin batera, 3. mailan hilaletako egonaldi bat egiten dute, New York, Mexico, Costa Rica, India eta Dublin-en, kasuan kasu, eta 4. mailan atzerriko unibertsitate batean edo/eta Gradu Bukaerako Proiektua atzerriko enpresa batean garatzeko aukera dute seihileko oso baten zehar.

Nola egokitzen dira zuen metodologiak eta klaseak enpresek eskatzen dituzten profiletara?

Ranking-ek estatuan enplegarritasun handieneko graduen artean kokatzen gaituzte. Mondragon Unibertsitatea Euskadiko lehen enpresa-taldeko kide gara eta horrek enpresetatik oso gertu egoteko aukera ematen digu. Bestalde, konpetentzia teknikoek gain, soft skills edo zeharkako konpetentzien garapena bermatzen dugu, arazoan ebazpena, lidergoa, autonomia, talde lana, ikuspegi globala, analitika, kontzientzia eta konprometua, eta abar.

Durangaldetik lehenengo orduan pasatu eta gero, Korrikak segida izango du Korrika Txikiekin

Eskualdeko makina bat umek irtengo du gaur kalera Korrikaren alde arineketan egitera. Korrika Txikien hitzordu nagusiak gaur izango dira, baina lasterketek jarraipena izango dute datorren barikuan ere. Bestelako ekimenak ere egongo dira

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Bai, egia da, aurtengoa goiz pasatu da, lehenengo orduan, oilarrentzat ere goizegi den ordutegi batean. Baina, aizue, txarto ala? Horixe du Korrikak. Eguna edozein dela ere, ordua edozein dela ere, toki geografikoa edozein dela ere, beti dago euskaltzale talde bat lekukoa Euskal Herriko bazter guztietara arineketan eramateko prest. Eguraldi txarragaz ere bai. Eta, bai, hotz egin du bart gauean eta goizaldean, eta Durangaldeko makina bat herri-tarri berotu zaio hauspoa. Baina korrika egiteko gogo handia igarri da, eta beharizana, Korrika, aspaldiko Korrika, gure kaleetara bueltatu delako hiru urteko lozorroaren ostean. Durangaldea eta Gipuzkoako mendebaldea zeharkatu eta gero, Araban sartuko da gaur. Gasteiz izango da bisitatuko duen lehenengo hiri handia. Gero, hilaren 10ean, Donostian, jai erraldoi bategaz agur esango digu.



Korrikako lekukoa.

Dena dela, penarik ez oraingoz. Korrika egarrit jarraitzen duenak zain dituelako Korrika Txikiak. Zaldibarko umeek 10:00etan ekingo diote, gaur, Korrika Txikiari. Euskal Herria etorbidean hasiko dira. Abadiñoko Zelaian, 15:30ean hasiko dute Korrika Txikia, eskolan. Apirilaren 5ean elorriarren txanda izango da. Ko-

Korrika Txikiaz gainera, berriztarrek disko-festa egingo dute apirilaren 8an, 18:30ean, Olakuetan

rrika Txikia 14:30ean hasiko da, plazatik. Gero, disko-festa egingo dute. Apirilaren 8an beste hainbat herritan egingo dute Korrika txikia. Mallabian 15:00etan egingo dute. Berrizen ere bai, 15:00etan, Zengotitabengoa kalean hasita. Ondoren, disko-festa egingo dute, 18:30ean, Olakuetan.

Langile Autofedentsa Sareak zerbitzuen sektoreko arazoak identifikatu ditu

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Durangaldeko Langile Autodefentsa Sareak zerbitzuen sektoreko beharginen lan baldintzak aztertu ditu. Eskualdeko tabernetan eta dendetan beharrean dabilen 200 bat kide inkestatu eta egoeraren diagnosis egin dute. Atera duten ondorioetarik bat da soldatagaz loturiko arazoak nabarmenak direla. Inkestatuen %60k baino gehiagok diote prezioek gora egiten duten arren euren soldatek ez dutela igoerarik izan "denbora luzean". %21ek diote aparteko orduak ez dituztela kobratzen, eta %23k "sumisioa" sentitzen dute negozioko nagusiarekiko. %80k diote prest daudela arazoari "modu kolektiboan aurre egiteko".

Kontratazio laguntzek gora egin dute: 12 eskaritik 46ra igaro dira urtebetean

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Enplegua sustatzera bideraturiko laguntzek iaz baino eskari handiagoa izan dute Durangon. 2021ean, hamabi enpresa eta komertzio durangarrek eskatu zituzten diru laguntzak kontratazioetarako. Aurten, kopuru hori ia lau bider handiagoa da. 46 enpresak eskatu dute diru laguntza udaletxean kontratazioetarako.

Igoera hori udalak bideraturiko diru kopuruan ere islatu da, urte bitik hona kontratazio laguntzetarako diru poltsa ia bikoiztu egin dute eta. 186.000 eurotik 390.000 eurora igo dute.

Bentzenoaren jatorria topatzeko, "azterlan partekatu bat" eskatu diote Jaurlaritzari

Durangoko gobernu taldeak egin du eskaria. EAJk saio informatibo bat eskatu du



Airearen kalitatea neurtzeko gailu bat, lurretan.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko udalbatzak airearen kalitateari buruzko "azterlan partekatu bat" egitea eskatu dio Eusko Jaurlaritzari. Ikerketa partekatu horrek Durangoko eta Iurretako udalerriei eragingo lieke eta gobernu taldearen berbetan "bentzenoaren jatorria ikertzeko" balioko luke. Mozioak jasotzen duenez, premiazkoa da "beharrezko bitartekoak ipintzea" eta "lan-mahaiak" sortzea, "herritarrak kutsaduratik babesteko eta neurriak elkarregaz

lantzeko". Eskariak asteon egindako osoko bilkuran egin du aurrera, udal gobernu taldearen botoekin. Bestalde, airearen kalitateari dagozkion parametroak "eguneratzeko" eskatu diote Jaurlaritzari, Osasunaren Mundu Erakundeak gomendatzen dituen balioak aintzat hartuta.

EAJk beste proposamen bat egin du. Durangoko eta eskualdeko airearen kalitateari buruzko saio informatibo bat egitea eskatu du. Diotenez, herritarrek ez dute "hartzien diren neurriak eta lortzen diren emaitzei buruzko informazio garrantzitsurik", eta "beharrezkotzat" jo dute informazioa "gardentasun osoz" ematea. EAJk dioenez, informazio saioa Ingurumen Sailak emango luke.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko apirilaren 1a
20. urtea - 888. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

"Alemania Europako herrialde gorena da banku publikoaren erabileran; eredu hori eskatzen dugu Euskal Herriarentzat"

Durangoko pentsiodunek kritikatu dutenez, bankuen digitalizazio azkarrak egoera zaurgarrian ipini ditu adinduak

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko pentsiodunak kexu dira. "Kaltetuta" sentitzen dira bankuek eskaintzen dituzten zerbitzuei eta aurrez aurreko arretari dagokienez. "Bankuek bost urtean egin gura zuten digitalizazio prozesua, baina hori baino azkarrago egin dute, noiz eta izurri kriminal bat tartean egon denean. Prozesu digitala hain azkar egiteak azpiklaseak sortu ditu gizartean, eta horrek zaurgarritasuna ekarri du hainbat kolektibotara. Bankuek euren boterea erabiltzen dute euren araua ezartzeko. Adinduak kolektibo kaltetua garela da gure balorazioa", esan dute pentsiodunek. Hori dela-eta mozio bat eraman



Durangoko pentsiodun batzuk, udalbatzan erregistratutako mozioa eskuetan.

dute Durangoko osoko bilkurara. Euren eskakizunak babesteko eskatu diete politikariei. Hauxe

eskatu dute: bankuek aurrez aurreko arreta zerbitzua bermatzea, itxarongela bat ipintzea,

zordunpeko kreditu txartelak komisorik barik eskaintzea eta banku publikoa sortzea.

Azken puntu hau da, hain zuzen ere, eskarien ardatza. Eta plenoan zeresanik gehien eman duena. "Banku publikoa gura dugu, etikoagoa izango den banku bat edukitzeko, hain zuzen ere. Espainia-ko estatua da banku publikorik gutxien duen Europako herrialdeetarikoa bat. Modernitatearen eta ongizatearen eredutzat dugun Alemania, ostera, banku publikoa gehien erabiltzen duen herrialdea da European. Eta horixe da Euskal Herriarentzat eskatzen duguna: banku publikoa", adierazi dute pentsiodunek. "Banku publikoa herritarren zerbitzura egongo litzateke. Izan ere, bereizi egin behar dira zerbitzu publikoa eta zerbitzu pribatua", gaineratu dute. Pentsiodunen mozioak gobernu taldeko kideen botoekin egin du aurrera. Oposizioko alderdiek bat egin dute eskarietarikoa batzuetan, baina "desadostasunak" eta "zalantzak" agertu dituzte banku publikoari loturiko puntuan.

Durangoko eragile feministek Berdintasun Plan berria landu dute udalagaz elkarlanean

Herrian egiten den III. Berdintasun Plana da aste honetako osoko bilkuran onartu dutena



Udal ordezkariak eragile feministekin.

DURANGO • MAIALEN ZUAZUBIZKAR

Durangoko mugimendu feministak eta udalak Berdintasun Plan berria sortu dute. Testua asteon aurkeztu dute, Arte eta Historia Museoan, eta eguazteneko osoko bilkuran onartu dute. Udalak dioenez, Berdintasun Plan berriak "salto kualitatibo" bat ekarriko du. 2027ra arte egongo da indarrean, eta, besteak beste, honako erronka hauek izango ditu lantzeko: emakume gehiagorengana eta anitzagoengana heltzea, zaintza lanak ikusarazteko eta demokratizatze lanak jarraitzea, zaintza lanen diagnostikoa egitea, gizarte antolaketa erantzukidean sakontzea, ekonomia feminista aintzat hartzea eta interseksionalitatea kontuan hartzea. Eragile feministek azpimarratu dutenez, Berdintasun Plana "bide orri" bat da eta ahots desberdinek bertan parte hartzeari "ezinbestekoa" irizten diote. Era berean, talde feministek diotenez, "prozesu horretan parte hartzea kontzientzia hartzeko era bat da".



Udaro programak bost eskaintza izango ditu 3tik 14 urtera arteko umeentzat.

Udako aisialdi eskaintza prest Durangoko umeentzat

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Ekainaren 27tik abuztuaren 5era bitartean, Udaro aisialdi programa eskainiko dute Durangon. 3tik 14 urtera arteko umei zuzenduriko eskaintza izango da, abentura, kirola, ingelesa eta kanpalekua eskainiko dituen. Guztira, 500 plaza eskainiko dituzte, bost udaleku programatan banatuta. Aisialdi

eskaintza astelehenetik barikura egingo dute, 9:00etatik 14:00etara. Izena emateko, programa bakoitzari dagokion atalera joan eta inprimakia bete beharko da. Apirilaren 25ean zabalduko dute horretarako epea. Informazio gehiago gura duenak udalaren web orrira, 946030033 telefonora edo 630815243 whatsapp zenbakira jo dezake.


**Martxoaren 28tik
apirilaren 8ra arte**
Olaburu 3 - IURRETA
Tel.: 94 428 80 00
www.orobiogoitiabhi.hezkuntza.net

JUAN OROBIOGOITIA BHI

Batxilergoko modalitateak D ereduan

- Zientzia eta teknologia.
- Giza eta Gizarte Zientziak.

- Euskarazko doako kalitatezko hezkuntza.
- Orientazio akademiko-profesionala.
- Familia, ikasle eta langile guztien partaidetza.
- Teknologia berrien aldeko apustua.



Eredu kooperatiboaren bitartez Izurtzan etxebizitzak egiteko interesa erakutsi du lagun talde batek

Azken urteetan, herriko biztanle kopuruak behera egin du eta udalak aukera modura ikusten du joera horri buelta ematen hasteko

IZURTZA • J.D.

Azken hamarkadan, Izurtzako Udalak saiakera bat baino gehiago egin du Garauntza lez ezagutzen den inguruan kooperatiba ereduaren bitartez kudeatuko litzatekeen etxebizitza proiektua sustatzeko, baina orain arte ezin izan du gauzatu. Hala ere, proiektua berpizteko aukera dute orain. Lagun talde batek

Atzo herri batzarra egin zuten proiektua aurkezteko eta izurtzarrei batzeko aukera emateko

inguru hartan eredu kooperatiboaren bitartez etxebizitzak egiteko interesa erakutsi du, eta udalagaz hartu-emanetan dago azken hileetan.

Garauntza inguruko lursailak udalarenak dira. Beraz, udalak lurren erabilera utziko lioke lagun talde horrek sorturiko elkar-teari, honek proiektua aurrera

eraman dezan. Interesa erakutsi duten lagunak Durangaldekoak dira. Izurtzako Udalak proiektua herritarrei aurkezteko eskatu die, interesa duen izurtzarrik balego egitaspora batzeko aukera izan dezan. Batzar hori atzo

egin zuten, erabilera anitzeko lokalean. Egitasmoa gauzatzeko, udalak arlo horretako ordenantza moldatu behar du, eta atzo ekarpenak jaso ahal izan zituzten. Azken urteetan, Izurtzako biztanle kopuruak behera egin

du eta Lorea Muñoz alkateak uste du proiektu hau interesgarria dela joera hori "aldatzeko" eta "herriari bizia" emateko. Gaur egun, 254 lagun bizi dira Izurtzan. 2013an 292 bizi ziren, Eustat-eko datuen arabera.



Udalaren jabetzakoa den lursail hori Bitaño auzorako sarreraren ondoan dago.

Otxandioko plazako azken faseko lanak esleitzeko prozesua hasi du udalak

OTXANDIO • J.D.

2014tik hona, Otxandioko Udalak plaza nagusia eraberritzen dabil, faseka. Une honetan, hirugarren eta azken faseari ekin diote. Behin hirigune historikoan derrigorrezkoak diren indusketa arkeologikoak egin-

Plaza eraberritzeko fase bakoitzaren hasieran, indusketa lanak egin dituzte Otxandion

da, udalak lanak esleitzeko prozesua hasi du. Proposamenak aurkezteko epea joan zen astean amaitu zen. Hortik aurrera jasoriko eskaintzak baloratu eta lanak esleitzeko dituzte.

2014ko lehenengo fasean, bolaleku inguruko zatia eraberritu zuten. Hurrengo bietan, pilotaleku inguruan eta udal-letxe parean aritu dira. Fase bakoitzeko lanak hasi aurretik, indusketa arkeologikoak egin dituzte.

Antolatzaileak pozik daude Mañariko auzo eta baserriak hobeto ezagutzeko irteeren harreragaz

Bost ibilaldi egin dituzte Mañariko auzoak ezagutzeko. Arzubiak askotariko azalpenak eman ditu ibilaldi bakoitzean

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañariko Andra Mari Aisialdi eta Kultura elkarteak bost ibilaldi antolatu zituen herriko auzo eta baserriak ezagutarazteko. Joan zen astean egin zuten azkenengo ir-

"Aukera ezin hobea izan da herria ezagutzeko. Aurrerantzean ere posible da ibilaldi gehiago antolatzea"

teera. Antolatzaileek oso balorazio positiboa egin dute hile hauetan antolaturiko ibilaldien inguruan. "Batuetan gehiagok eta beste batuetan gutxiagok parte hartu dute, baina, orokorrean, oso gustu-

ra geratu gara", azaldu du Karmele Gonzalez de Audikana Andra Mari Aisialdi eta Kultura elkarteak. "Aukera ezin hobea izan da herria ezagutzeko. Aurrerantzean ere ibilaldi gehiago antolatzea posible da", azaldu du. Antolatzaileen esanetan, badago bisitatzeko leku gehiago, Mañariko minak, esate baterako.

Jon Arzubia izan da ibilaldietan azalpenak eman eta gidari lana egin duena. Mañariarrak dioenez, herriko historiari buruzko azalpenak berak eman dituen arren herrikideek auzoei buruz ezagutzen dutena partekatu dute. Beraz, ibilaldietan informazio trukea izan da.

Urriko lehenengo irteeran, Aldebarrena auzotik ibili ziren. Bigarrena azaroaren 21ean izan zen, Aldebaraieta auzotik. 2022ko urtarilaren 9an, Arrueta auzoa ezagutu zuten. Azkeneko irteera bietan, otsailaren 20an eta martxoaren 20an, Aldegoiena auzotik ibili ziren.



Mañariko irteera batean ateratako argazkia.

Mallabiko frontenis txapelketako txapelak Elgetara, Burgosera eta Harora joan dira

MALLABIA • J.D.

Mallabia kirol taldeak joan zen asteburuan antolaturiko frontenis txapelketa arrakastatsua izan zen eta, beste behin ere, estatuko toki askotatik etorritako bikoteek parte hartu zuten. Txapelketa mistoan, Andrea Arnaiz burgostarrak eta Adrian Viribay haroarrak jantzi zuten txapela. Finalean, 16-9 menderatu zituzten Jesus Dominguez eta Gwenaelle Cenicero iruindarrak.

Mistoan, Andrea Arnaiz burgostarrak eta Adrian Viribay haroarrak jantzi zuten txapela

Emakumeen txapelketan, Mireia Rubio eta Maitena Mañarikua elgetarrentzat izan zen garaipena. Finalean, Ihintza Imaz eta Maialen Ezeozala ormaiztegiarrak menderatu zituzten.



Gremioen gida

 **Zurgintza**

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

 **Iturgintza**

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

 **Iturgintza**


Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

 **Iturgintza**

 **UNAI
GARAY**
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Instalatzailer baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

 **Zurgintza**

ATERPE AROZTZA
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

 **Dekorazioa**

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



*Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!*



Hainbat herritarrek 700na euroko isuna jaso dute "agintaritzari desobedientzia egitea" egotzita

Oraingoz, hamar bat lagunek jaso dute isuna. Irailean protesta bat egon zen Irazolarako zubia botatzea

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Irailean, hainbat herritarrek protesta egin zuten Abadiñon, Irazolarako zubiaren eraisketa gelditzeko. Ertzaintzak hogeit bat lagun identifikatu zituen protesta horietan, eta identifikaturiko hamar bat herritarrek isuna

jaso dute orain. "Guk dakigunez, oraingoz hamar bat lagunek jaso dugu isuna, baina beste hainbat ere identifikatu zituzten", azaldu du Arrate Mardarasek, kaltetuetariko batek. Mardarasek azaldu duenez, 700na euroko isunak jaso dituzte, ustez agintariei

desobedientzia egitea egotzita. "Gure segurtasuna eskatzearen zigortu gaituzte", gaineratu du Irazolako auzokideak. Mikel Urrutia EH Bilduren bozeramaileak gaineratu du protesta "bake-tsua" izan zela.

Irazolako auzotarrek eskerrak eman dizkiete eurek deituriko protestara bertaratutako herritarrei, eta isuna jasotzen dutenei eurekin hartu-emanetan ipintzeko eskatu diete.

Anbotoko kazetariak ere isuna
ANBOTOk kazetari bat protesta horren berri jakitera bertaratu zen eta berak ere jaso du 700 euroko isuna, nahiz eta hainbat bider identifikatu zen kazetari lez. ANBOTOk kazetariak alegazioa ipiniko du orain.



Irailean egindako protestako argazkia.

Industria ondarearen balioa nabarmentzeko aldizkaria, kalean

Elorriko Udalak 'Harria eta taladrina' aldizkaria aurkeztu du. Aldizkariaren 0 zenbakia kaleratu dute.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorriko industria ondarean oinarrituriko ikerketa egin dute eta industria ondarea ezagutaraztea eta zabaltzea du helburu joan zen astean aurkeztu zuten 'Harria eta taladrina' aldizkariak. Idoia Buruaga alkateak, Alazne Mendizabal zinegotziak eta Ainara Martinez AVIOPEko eta Ikusmira Ondarea enpresako kideak eman zuten prentsurrekoa aldizkaria aurkezteko.

'Harria eta taladrina' aldizkariaren 0 zenbakia da eta beste

zortzi zenbaki kaleratuko dituztela azaldu zuten. "Nor garen, nondik gatozen, zelan aurrera egin dugun edo elorriar egiten gaituzten berezitasunak zeintzuk diren ikertzea eta ezagutaraztea da Elorriko Udalaren helburua. Gainera, hori guztia genero ikuspegiagaz landu dugu", azaldu du Alazne Mendizabal zinegotziak.

Bestalde, aldizkarian industria ondarea zer den eta ikerketak zergaitik merezi duen ageri dela azaldu du Idoia Buruaga alkateak.



Eguenean egindako aurkezpeneko argazkia.

Atxondoko haurreskolan matrikula egiteko epea, laster zabalik

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko haurreskolak hile honetan zabalduko du matrikula egiteko epea 2022-2023 ikasturterako. Matrikulazio hori 2021 eta 2022 urteetan jaiotako haurrentzat izango da.

Atxondoko haurreskolan matrikula egiteko epea apirilaren 11tik maiatzaren 9ra egongo da zabalik

Atxondoko Udaleko webgunean jakinarazi dutenez, matrikula epea apirilaren 11tik maiatzaren 9ra bitartean egongo da zabalik, eta aukera bi egongo dira matrikula egiteko: bat Interneten bitartez, eta bestea aurrez aurre.

Kafe hondarretatik ostra-perretxikoak erne dira Elorriko Lourdesko Ama Ikastetxean

Elorriko Lourdesko Ama ikastetxeko LH5eko ikasleek herriko hainbat tabernatik jaso dute kafe hondarra

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Askok eta askok zaborretara botatzen duten kafe hondarra altxorra bihurtu da Lourdesko Ama Ikastetxeko ikasleentzat. Elorriko ikastetxean, urteak daramatxate Txoko Berdea proiektua lantzen, eta, aurten, Betsaidek emandako diru laguntza bati eskerrak Funghi Thinking proiektua aurrera eramanez, Funghi Thinking-eko Egoitz Etxeandia koordinatzaileagaz batera.

Proiektuaren prozesua

Proiektu honi eskerrak, kafe hondakinetatik ostra-perretxikoak erne dira Elorriko. Herriko hainbat tabernetara joan, kafe hondakinak jaso, eta LH5eko ikasleek prozesuari hasiera

eman zioten. Kafe hondarra lastoagaz eta mizelioagaz nahastu eta poltsetan sartu zuten. Poltsa horiek ilunetan izan dituzte lau bost astean, hezetasun eta tenperatura jakin batean, eta behin poltsak guztiz zurituta, argitara atera eta egunero ureztatu dute barrukoa. Joan zen astean eman zioten amaiera zikloari, ikastetxean erretako ostra-perretxikoak Xelai tabernara eramanda. Kafe hondarrak emandako tabernetariko bat da Xelai. Parra, Portalekua eta Bikale tabernekek ere eman diete kafe hondarra Lourdesko Ama Ikastetxekoei.

Ikastetxekoei jakinarazi dutenez, hondakintzat hartzen dituzten hainbat gauzak berreskuratzea izan dezaketela ikusi dute prozesu honi eskerrak.



Lourdesko Ama Ikastetxeko ikasleak Xelai tabernan.

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

*** Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

> anboto

“Gure arteko kimika onari eusten diogula ikusi dugu entseguetan”

Keike talde ondarroarrak Berrizen eskainiko du itzulerako lehenengo kontzertua, Topa tabernan, zapatuan, 18:07etan

BERRIZ • ARITZ MALDONADO

Keike talde ondarroarra bueltan da hamabi urtean taula gainera igo barik egon eta gero. Taldea 2002an sortu zen eta disko bi kaleratu zituzten euren lehenengo etapan: 'Oinetan kea' (Oihuka, 2004) eta 'Beldurra, mina, argia...' (Oihuka, 2006). Euskal Herrian dozenaka kontzertu eskaini eta gero, 2010ean euren azken kontzertua eskaini zuten, Ondarroan bertan. Hamarkada bat geroago, berriro elkartu ziren kontzertu solte batzuk emateko asmoagaz. Baina osasun krisialdiaren ondorioz, itzulerako kontzertu sorta hori 2022ko udaberrira arte atzeratu dute. Berrizegaz duten hartu-eman bereziak bultzatuta, bertan egingo dute itzulerako lehenengo kontzertua, Topa tabernan, zapatuan. Gaur egun, Denis Alberdi berriztarrak (bateria), Gorka Ruizek (baxua), Axular Arrasatek (gitarra), Jon Kirru Iparragirrek (gitarra eta koroak) eta Nerea Sanchezek (ahotsa) osatzen dute Keike.

Zapatuan berriro igoko zarete ohol-tza gainera. Gogotsu?

Egia esateko, oso gogotsu eta ilusionatuta gaude. Hamabi urte dira azkenekoz taula gainera igo ginenetik. Pandemia aurretik saiakera bat egin genuen eta kontzertu batzuk jotzekotan geratu ginen, baina dena bertan behera utzi behar izan genuen. Orain badirudi itzulera posible dela.

Gure lehenengo kontzertua Hiltegixen izan zen; itzulerakoa ere Berrizen egitea berezia dela uste dugu

Berrizen joko duzue lehenengoa. Zelan, ba?

Denis bateria-jotzailea berriztarra da jatorriz. Eta, egia esateko, Berrizen jarraitzaile ugari eduki dugu betidanik. Denisen ordez



Keike taldea.

Joshua Froufre ibili zen denbora batez, gaur egun Shinova taldean dabilena, eta bera ere berriztarra da. Horrez gainera, Keikeren lehenengo kontzertua Berrizko Hiltegixen eskaini genuen, gaztetxean. Horregaitik, aukera ona iruditu zitzaigun bigarren buelta honetako lehenengo kontzertua bertan jotzea.

Egin duzue aurrera begirako planik?

Oraingoz, lotuta ditugun kontzertuak jotzea da gure asmoa. Hainbat lotu dugu. Ilusioz gaude eta ea ilusio horri eusten diogun jotzen hasi eta gero ere. Berriro batu garenetik oso ondo konpondu gara, irribarretsu gaude beti, eta gure arteko kimika onari eusten diogula ikusi dugu. Entseguetan gure saltsan ibili gara eta ideia berriek ere irten dute.

Dena dela, orain kontzertu sorta honetan zentratu gura dugu. Ez dugu baztertzeko abesti berriak grabatzea, baina oraindik ez. Aurrerago, beharbada.

Zer ikusiko dute zaleek zapatuan?

Kanta zaharrak joko ditugu. Abesti berriak ez daukagu hain landuta. Bere garaian, disko bi kaleratu genituen eta horko kantak joko ditugu.

Antzerki tailerraren hirugarren saioa egingo dute Zaldibarren

ZALDIBAR • A.M.

Zaldibarko Mintzalagun egitasmoak antzerki tailerrarako saio bat antolatu du apirilaren 9rako; maiatzaren 7rako beste ekitaldi bat antolatu du, familian euskaraz gozatzeko. Saio biak 10:30ean izango dira, liburutegi zaharrean, doan. Gurasolagun egitasmoko kideek lehenengo saioa izango dute izena ematerako orduan; hala ere, gura dutenek parte hartu ahal izango dute zaldibarkoberbalaguna@gmail.com helbide elektronikoan izena emanaz gero. Zaldibarko Mintzalagun egitasmoko kideek adierazi dute plaza mugatuak daudela. Mintzalagun egiteko deia ere egin dute.

Zornotzako Bizikleta Plana garatzeko lanak astelehenean hasiko dituzte

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak apirilaren 4an hasiko ditu Bizikleta Plana garatzeko lanak. Obrek sei hilabete iraungo dute eta herriko hainbat puntutan izango dira. Lan hauekin, gaur egungo bizikleta sarearen jarraikortasuna eta arazoak konpontzea, erdiguineko perimetroa mugatzea, sartzeko ateak ipintzea, seinaleak hobetzea eta oinezkoentzako zein txirrindularientzako ibilbide partekatuetan sortzea aurreikusi dute. Herrian bizikleta bidezko mugikortasuna sustatzea da udalaren asmoa, lanera, ikastera zein errekaduak egitera bizikletan mugitzea. Lanek 1.139.000 euroko inbertsioa izango dute.

Zapatuan manifestazioa egingo dute osasun sistema publikoa defendatzeko

Zornotza Osasun Publikoaren Alde plataformak (ZOPA) egin du deialdia. Osasun aurrekontua %5,5etik %7ra igotzea eskatuko dute, eta Lehen Mailako Arretarena %15etik %25era

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Mobilizazioa anbulatorio paretik irtengo da, 12:30ean. ZOPAk dioenez, osasun sistema publikoa "krisian" dago, eta, bereziki, Lehen Mailako Arreta. Baina ez izurriagaitik edo profesional faltagatik, kudeaketagaitik baino. Aurrekontu publikoak osasun negozio pribatuaren interesen alde erabiltzea egotzi die gobernuei. "Gaur inoiz baino gutxiago dira osasunerako baliabide ekonomikorik ez izatearen inguruko aitzakiak. Izan ere, gobernu horiek gai dira egun batetik bestera milioika euroko kopuru izugarriak ipintzeko, energia industriaren espoliazioa ordaintzeko edo industria militarren gastu are handiagoari aurre egiteko".



Osasungintza publikoa aldarrikatzeko Durangon egindako mobilizazio bat.

Emakume batek jasandako eraso sexista gaitzetsi dute lurretan

Iurretako Udalak, Anderebide emakume elkarteak eta Auskari talde feministak deituriko kontzentrazioan elkartutako herritarrek babes osoa adierazi diote biktimari



Martxoaren 29an dozenaka lagun batu ziren Askondon eraso matxista salatzeko.

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Aste honetan kontzentrazio isila egin dute Askondon, joan zen martxoaren 26an emakume batek Iurretan izandako eraso matxista salatzeko. Iurretako Udalak, Anderebide emakumeen elkarteak eta Auskari Ijorretako Neska Gazteak taldeak deituta elkarretaratzera bertaratutakoek adierazi dute ez dutela emakumeen aurkako erasorik onartuko, izan fisikoa zein psikologikoa. Era berean, babes osoa adierazi diote biktimari.

Kontzentrazioaren deitzaileek emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean arduragabe ez jokatze eskatu diete herritarrei, "sexu-jazarpenaren eta gehiegikeriaren aurrean zero tolerantzia" agertu dezatela. "Emakumeen aurkako indarkeria (psikologikoa, ekonomikoa, fisikoa, sexuala, bikarioa...), emakumeen duintasunaren eta segurtasun fisiko nahiz moralaren aurkako eraso larria da, eta, ondorioz, giza eskubideen urraketa larri eta onartezina", nabarmendu dutenez.

Iurretako Santa Apoloniako industriaaldea urbanizatuko dute, 16 lursail eraikigarrigaz

Santa Apolonian 85.000 metro koadroko industriaaldea urbanizatzea onartu du udalak

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak finkatu bako Santa Apoloniako industria-lur-zoruaren urbanizazioa onartu du, 85.000 metro koadroan 16 partzela eraikigarri sortzeko. 2009n hasitako proiektua bertan behera geratu zen krisi ekonomikoagaitik, eta 2019an berriro ekin zioten, lurzoruaren %50etik

gorako jabeekin Hitzarmen Batzordea sortu zenean. Lurjabeek industrialde "moderno" eta "jasangarria" garatuko dute, 3,27 milioi euroko aurrekontuagaz. Berdeguneak eta ibilgailu elektrikoentzako puntuak egokituko dituzte, eta aisialdirako gune bat ere bai XVII. mendeko Iturriotz baserriaren ondoan.



Datozen hileetan Hitzarmen Batzordeak pleguak onartzea aurreikusi dute.

Garaiko Landare eta Lorazaintza Azokan 12 saltzaile eta lanabes enpresa bi egongo dira

GARAI • EKAITZ HERRERA

Izurriak eragindako etenaren ondoren, Garaiko Landare eta Lorazaintza Azoka bueltan dator. San Migel elizaren inguruak Euskal Herri osotik ailegaturiko lore eta landare saltzaileekin beteko dira datorren asteko domekan, apirilaren 10ean. Dozena bat izango dira bertaratuko diren lore eta landare saltzaileak. Fruta landareak, ortuko landareak, fruitu txikiak eta

lore apaingarriak ekarri eta salgai ipiniko dituzte. Euren ondoan, lorategi lanetarako materiala eskainiko duten enpresa bi egongo dira. Makineria, eskuko tresnak eta animalia txikientzako gaiak salduko dituzte. Baina azokak bestelako saltzaileentzat ere izango du lekua. Izan ere, gaztagileak, txakolin eta sagardo ekoizleak, okinak eta gozogileak ere bertan izango dira, udalak jakinarazi duenez.

Azoka 10:00etatik 15:00etara egongo da martxan. Bisitariek txartel bat jasoko dute eta txartel horregaz aukera izango dute erositakoa zaindegi batean gordetzeko, denbora guztian aldean eraman beharrean. Gura dutenean bueltatuko diete erositako jeneroa, txartela erakutsita. Udalak azoka inguruak garbi mantentzeko eskaria egin die bisitariei.



Landare eta lorezaintza azokaren aurreko edizio bat.

VII. Landara eta Lorazaintza Azoka 2022

GARAI
Apirilak 10

Erosketa gordetzeko zaindegia egongo da

Antolatzaileak:  

Laguntzaileak: 

Berton Bertokoak gala egingo du apirilaren 1ean Elorrion, Arriolan

Tokiko elikaduraren aldeko dinamika antolatu duen gala 19:00etan hasiko da



Berton Bertokoak dinamika kideak galarako prest.

ELORRIO • JOSEBA DERTEANO

Tokiko elikaduraren aldeko Berton Bertokoak dinamika jaialdi berezi bat egingo du gaur, apirilak 1, Elorrioko Arriola aretoan. Ekitaldia 19:00etan hasiko da. Egitasmoaren bultzatzaileek aurreratu dute zuzeneko musika, photocalla, sari banaketa eta dantzak egongo direla. Alde batetik, Durangoko L'Atelier eta Galdakaoko Strat dantza taldeetako kideak arituko dira oholtzan sari banaketak iraun bitartean. Bestetik, Ganso y CIA klown konpainiak ere parte hartuko du, eta ez dira faltako Elorrioko Iheskide taldearen punk rock doinuak.

Oihana Azkorbebeitiak eta Ibai Zabalak gidatuko dute gala eta Durangaldeko herritarrak, familiak eta gurasoak bertan parte hartzerantz deitu dituzte kirolari biek.

Politikan

Jesica Ruiz
Perez
PSE-EE



Ongi etorri Urki - Hegoalde

Martxoko osoko bilkuran Urki-Hegoalderen azken fasea amaitzeko kreditu aldaketa onartu dugu. Urki-Hegoalde Durango kanpoko saihasbidearen izena da. Hainbat fasetan banatu izan da: lehenengo fasea 2012an egin zen; bigarren fasea, 2014ko irailean; eta hirugarrena, 2019an.

Guretzat, Durangoko sozialistontzat, Urki-Hegoalde beti izan da lehenetsus bat. Horrela adierazi genuen 2020ko aurrekontuetan, emendekin baten bidez eskatu genuenean, eta berdin egin dugu aurtengo aurrekontuetan. Harritu gaituen da Gobernu taldeak kontra bozkatu duela bi kasuetan, eta, orain, hiru hilabete geroago, kreditu aldaketa honekin topo egin dugu inolako azalpenik gabe.

Gainera, hiru urteko iraupea zeukan proiektua urte batera laburtu dute, jakinda ezinezkoa dela. Errepidea egiteak bakarrik 12 hilabeteko iraupena izango du, eta hasi baino lehen hainbat pauso eman beharko dira: pleguak, lizitazioa atera, adjudikazioa.... Horrek guztiak bere denbora darama. Beste alde batetik, jarri duten prezioa, 3,2 milioi euro, ez dago eguneratuta. Ikusiko dugu proiektua noiz amaitzen den eta zer kostu daukan.

Urki-Hegoalde amaitzea beharrezkoa da, horrek erraztuko baitu Eguzkitza industrializatzea, proiektu berriak ekartzeta eta 4.0 lan berritzaileak erakartzeta. Horrek guztiak lanpostuak eta errenta handitzea suposatuko du Durangorentzat. Beraz, ongi etorri Urki-Hegoalde.

Durangaldea asteen

Zapato honetan Orekarte azoka egingo dute lurretan, Askondoko karpa inguruan

IURRETA | Orekarte artisau eta bigarren eskuko Durangaldeko azokan 25 postu ipiniko dituzte, Askondoko karpn, eta eguraldiak lagunduz gero herriko tabernen inguruan ere bai. Azoka zapa-tuan izango da, 10:00etatik 16:00 ingurura arte. Hiru emakume artistak osaturiko kolektiboa da Orekarte, eta "kultur sinergiako espazioak" sortzea du helburu.

EH Bilduk hainbat proposamen egin du ostalari eta merkatariarentzat

ZORNOTZA | Zornotzako EH Bilduk pandemiak kalteturiko merkatari eta ostalariei laguntzak emateko proposatu dio udalari. 60.000 euroko laguntza proposatu du ostalariarentzat, Amorebo-noaren kanpaina berritzaile martxan ipintzea eta terrazetako buruzko araudi berri bat egitea, besteak beste.

Koba live metal jaialdia egingo dute ekainean Abadiñon

ABADIÑO | Ekainaren 25ean Koba Live metal jaialdia egingo dute Abadiñon. Guztira, sei taldek joko dute bertan: Vhåldemar, Vita Imana, Orion Child, Elbereth, The Kraven eta The Faithless taldeek. Sugaar musika elkarteetako antolatu dute jaialdia eta Abadiñoko Udalaren laguntza dute. Webgunean eskegi duten informazioaren arabera, jaialdia Traña-Matienako eskolatan egingo dute.



13 enpresak eta 2 ikastetxek lantegietan euskara sustatzeko konpromisoa sinatu dute

DURANGO | Azken hamar hileotan, Durangaldeko hainbat lantegiz erbitzuak eta errotuluak euskaratzen eta, orokorrean, euskararen erabilera sustatzeko lanetan ibili dira, AEKren bitartekaritzagaz. Asteon, pauso bat gehiago eman dute aurrera: euskara euren eremu sozioekonomikoan garatzeko konpromisoa sinatu dute jendaurrean. Askotariko enpresak dira, txikiak zein handiak, industrialak zein zerbitzuen arlokoak. LANDUE da egitasmoaren izena eta Mankomunitateak, Aldundiak eta Jaurilaritzak ipini dute martxan.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturrisa, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

Seguros Bilbao

RUEDA BILBAO ASEGURUAK Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com



DIFERENTZIAK

Topatu 7 diferentziak.



HITZ EZKUTUA

Irudi biek batera berba bat sortzen dute. Zein?

CIJK ALDARI A

JK ALDARI A

LOTU ITZAZU

Lotu beheko jateko bakoitza bere jatorrizko herrialdeagaz.



MEXIKO



FRANTZIA



ALEMANIA



JAPONIA



ITALIA


ZEIN DA?

Topatu dagokion pizza zatia.



MARGOTU

Goiko irudia kontuan izanda saiatu behean berdina marrazten.





AKADantz XIV. Kale Dantzen Lehiaketa

DANTZA ELORRIO :: Apirilak 2

Dantza urbanoak Arriolako oholtza hartuko du zapatuan

Funky, house, urban dance, hip-hop, break-dance, locking, popping... Apirilaren 2an, dantza urbanoak nagusituko dira Arriola antzokian. Aurten ere, AKADantz dantza urbanoen lehiaketa egingo dute, hamalagarrenez. Lehiaketak tokiko dantza urbanoak bultzatzea du helburu, eta dantzari gazte eta amateurrei zuzenduta dago. Entsegu ordu asko eskatzen duten diziplinak dira, bai akademian, bai lagun artean modu autodidaktan, eta, anto-

latzaileen berbetan, AKADantz topaleku bihurtu da dantza urbanoekiko zaletasuna partekatzen duten gazteentzat.

Lehiaketa hau erakustaldia ere bada, dantza urbanoa egiten duten gazteak lanean jarraitzera animatu gura dituen. Eurak dira sortzaileak, eurak protagonista, nabarmendu dutenez. Arriolak, Elorrioko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak lagunduriko lehiaketa da. 16:30ean hasiko da.

Apirilaren 1ean

BERRIZ antzerkia

'Ganbara' (Markeliñe), 17:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

IURRETA aurkezpena

'Bostehun eta Zutik' ekimenaren aurkezpena, 20:30ean, Abadetxean. Afaria eta Karaokea egongo dira. Ondoren, Dj Eixu.

Apirilaren 2an

BERRIZ musika

Keike, 18:07etan, Topa tabernan.

BERRIZ musika

Idoia Asurmendi, 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean. 'Ilun eta abar' diskoa aurkeztuko du.

DURANGO mobilizazioak

'Faxismoa 2022. urtean' berbaldia, 17:00etan, Musika Eskolan.
'Antifaxista atzo eta gaur' lelopean mobilizazioak, 19:00etan, Andra Maritik.
Kontzertua, 21:00etan, Sorginolan: Dube + Hatxe + Selektah Stepi (Bad Sound) & Lagunak. Ernaik antolatuta.

IURRETA azoka

Orekarte artisau eta bigarren eskuko azoka, 10:00etan hasita, Askondon.

IURRETA musika

Auzorik auzo: Biren taldea, 18:00etan, Bakixa auzoan. Jarraian, auzokideekin luntxume bat egongo da.

DURANGO musika

'Tarán-Tran-Transición (Lluvia, grises y las 5.000 amantes del rey)' (La Pacheca Collective konpainia), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

ZORNOTZA bertsoak

'Durangaldea Uztabarritzen' bertso zirkuitua: Sustrai Colina, Onintza Enbeita, Igor Galarza, Ander Sarriugarte, 18:30ean, Etxanon. Gai-jartzailea: Beñat Romero.

Apirilaren 3an

ELORRIO antzerkia

'Oilar bat dagi teilatuan' (Tititriguri konpainia), 17:00etan, Arriola antzokian.

ELORRIO magia

'Ezinezkoaren logika' (Hodei Magoa) ikuskizuna, 17:00etan Arriola antzokian.

MALLABIA ekitaldiak

'Superigandea', askotariko jolasak egongo dira, goizean zehar, eskolako frontoian. Arratsaldean, Zutik filma, Kontzejuzarrean.

ZORNOTZA antzerkia

'Lehendakari Gaia' (Txalo Produksioak konpainia), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Apirilaren 5ean

GARAI berbaldia

'Berez ernetutako basoen kudeaketa eta Bioekonomia', 19:00etan, Garaiko udaletxean. Hizlaria: Aitor Onaindia Bereziartua (Mendi ingeniaria eta Basoa Fundazioko zuzendari teknikoa).

Apirilaren 6an

DURANGO berbaldia

'Goya, precursor de la modernidad', 19:00etan, Arte eta Historia Museoan. Hizlaria: Francisca Vives (EHUko irakaslea).

Apirilaren 7an

DURANGO dokumentala

'Apaiz kartzela' dokumentala, 19:00etan, Zugaza Zineman. Ondoren, mahai-ingurua: Xabier Amuriza, Jose Felix Azurmendi eta Juan Mari Arregi.

IURRETA dokumentala

'Tipularen sehaska kanta', 19:00etan, Montoste elkartearen.

Apirilaren 8an

ELORRIO antzerkia

'El avaro' (Morboria Teatro konpainia), 20:00etan, Arriola antzokian.

IURRETA antzerkia

'Good sex Maritxu' (Susana Soleto, Itxaso Kintana eta Gurutze Beitia), 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

Apirilaren 24an

DURANGO erakusketa

Goyaren, Haesen eta Fortunyren grabatuak, Arte eta Historia Museoan.

Zinema

:: Berriz

KULTUR ETXEA

• **El Triunfo**

barikua 1: 19:30

domeka 3: 19:00

:: Durango

ZUGAZA ZINEMA

• **Morbius**

barikua 1: 18:30/21:00

zapatua 2: 18:00/19:30

domeka 3: 18:00/19:30

astelehena 4: 18:00/20:15

martitena 5: 18:00/20:15

eguzatena 6: 19:00

• **Canallas**

barikua 1: 18:30/21:00

zapatua 2: 18:00/20:00

domeka 3: 18:00/20:00

astelehena 4: 18:00/20:15

martitena 5: 18:00/20:15

eguzatena 6: 19:00

• **Sonic 2**

barikua 1: 18:30/21:00

zapatua 2: 16:45/20:00

domeka 3: 16:45/20:00

astelehena 4: 18:00/20:15

martitena 5: 18:00/20:15

• **Rigoletto (opera)**

eguzatena 6: 19:00

:: Elorrio

ARRIOLA ANTZOKIA

• **El triunfo**

domeka 3: 20:00

astelehena 4: 20:00

:: Zornotza

ZORNOTZA ARETOA

• **Competencia oficial**

barikua 1: 20:00

zapatua 2: 20:00


astelehena 4: 20:15

• **Barraskiloa eta balea**

zapatua 2: 17:00

• **Cafarnaúm**

martitena 5: 20:15



“Hainbat istorio kontatzen da eta antzezlanak kolokan ipintzen du trantsizioari buruz kontatu diguten narrazio ofiziala”

Apirilaren 2an, 19:00etan hasita, 'Taran Tran Transición' izango da Durangoko San Agustin kulturgunean; Nerea Aizpuruak ipini dio musika



ANTZERKIGINTZA • ARITZ MALDONADO
Asteburuan, 'Taran Tran Transición. Lluvia, grises y las 5.000 amantes del rey' antzezlanaz gozatzeko aukera egongo da Durangon. Obrak Espainiako Trantsizio garaiko gertakariak hartzen ditu ardatz, eta umoretik eta hurbiltasunetik azaltzen ditu. Nerea Aizpuruak musikari durangarrak zuzenean jotzen du biolontxelo.

Martxoaren 12an eta 13an, 'Taran Tran Transición. Lluvia, grises y las 5.000 amantes del rey' ikuskizuna estreinatu zenuten. Zelako harrera izan zuen? Egun bietako sarrerak agortu ziren. Gogo geneukan jendearen erreakzioa ikusi eta entzuteko; azken finean, obra guztian zehar historian baztertuta izan diren istorioak kontatzen dira. Honek

Idea eta abesti batzuk proposatu zizkidaten; idatzita agertzen ez diren "efektuak" ere jotzen ditut eszenetako une batzuk azpimarratzeko

esan gura du antzezlanak kolokan ipintzen duela trantsizioari buruz kontatu diguten narrazio ofiziala. **Zelan Bea Insagaz eta Angel Mirou-gaz lanean? Ezagutzen zenituen?** Beak eta biok orain lau urte ezagutu genuen elkar. Nigaz hartu-emanetan ipini ziren *Hipolito, revisión contemporánea del mito de Fedra* obran parte hartzeko. Harrezkero, euren zenbait ikuskizunetan parte hartzen dut, aldiro. Angel ikuskizun honetarako lanean ezagutu dut.

Oraingoz antzerki munduan murgilduta ibiliko naiz. 'Hipolito'-gaz Teruelen eta Zaragozan

Zertan inspiratu zara obrari musika ipintzeko?

Beak eta Angelek ideia edo abestiren bat proposatu zidaten momentu batzuetarako, eta biolontxeloaren bitartez islatuta agertzen dira ikuskizunean. Horrez gainera, idatzida ez dauden "efektuak" jotzen ditut, eszenako momentu batzuk azpimarratzeko.

Ez da parte hartu duzun lehenengo antzezlan. Gustuko duzu diziiplina anitzeko horrelako obretan parte hartzea?

Horrelako proiektuetan parte hartzea beti da atsegina. Kasu honetan, antzerkia gertuagotik bizitzeko eta ikasteko balio izan dit,

nahiz eta musikak eta antzerkiak hartu-eman estua izan duten beti. Barruan zauden arte ez dituzu benetako zirrikituak ezagutzen, eta laudagarria da.

Apirilaren 2an Durangon eskainiko duzue, San Agustinen. Gogotsu zaude?

Etxean aritzea gogo handiz hartzen dut beti. Nerbioak bereziak dira, baina pozik jartzen nau gertuko dudana jendea butaketan ikusteak eta sentitzeak.

Besteak beste, bertan egindako erresidentzia bati eskerrak garatu ahal izan duzue proiektua. Zenbaterainoko dira lagungarriak?

Horrelako guneak edukitzea ezinbestekoa da. Proiektu hauek, hutsetik hasten direnak, denbora behar dute garatu eta lantzeko. Askotan, hasieran argi dituzun ideiak azkenean ez dira burutzen, edo aldatu egiten dira norbaitek proposamen berri bat egin duelako; beraz, saiakera asko eta ezberdinak egin behar dira gura duzun hori lortu arte.

Oker ez banago, 'Contado por ellas' antzezlanagaz saio mordoa egin zenuten. Honegaz ere helburu berdina duzue?

Oraingoz, proiektu honegaz antzezipen bi egin ditugu Bilbon, eta apirilaren 2an Durangon egongo gara. Uste dut udazken alderako ere badugula zeozer lotuta.

Baduzu beste proiekturik esku artean?

Oraingoz, antzerki arloan murgilduta ibiliko naiz. Esate baterako, *Hipolito* obragaz Zaragozan eta Teruelen izango gara.



Mertxe Olalde, margotzen.

Mertxe Olalderen margoak ikusgai izango dira apirilaren 10era arte Ezkurdiko aretoan

Margolari mallabitarra joan zen domekan hil zen, 96 urte zituela. Haren omenezko erakusketa izango da

DURANGO • JONE GUENETXEA

Ezkurdiko Erakusketa Aretoak Mertxe Olalderen margoak hartuko ditu apirilaren 1etik 10era Durangon. Margolaria joan zen domekan hil zen, 96 urte gaz, eta, beraz, erakusketa hau omenaldi legez hartu dute bere senitartekoei. Olalderen koadro koloretsuak ikusita, gutxi batzuek asmatu ahal izango dute horren atzean dagoen istorioa. Mertxe Olalde Astarloa

1925ean jaio zen, Mallabian, Osmazuko Ardanza baserrian. Gaztea zela Abadiñora ezkondu zen, eta, ondoren, Durangora joan zen bizitzera. 72 urte gaz alargun geratu zen. Bizitzako etapa berri horri aurre egiteko, lagun batek pintura ikastaroetan izena emateko proposamena egin zion. Hortxe hasi zen mallabitarren ibilbide artistikoa. Ikastaro batzuk eginda ekin zion margotzeari.

Aurretik sekula ere pintzel bat hartu bako emakumeak bere sen artistikoa deskubritu zuen. “Amama Mertxek orduak ematen zituen etxean margotzen. Senitartekooi hainbat koadro margotu zigun enkarguz”, azaldu du Gaizka Uriarte ilobak. “Hasieran, jendea-ri zahartzarora sasoi aktiboa izan daitekeela erakustea zen erakusketa honen helburua, amamaren moduan 72 urte gaz marrazten hasi daitekeela. Orain, erakusketa amama Mertxe gogoratzeko aukera bat izango da”, gaineratu du Uriartek.

“Ate asko jotzen gabiltza; itzela litzateke zirkuituari eskerrak gazteak batzea”

Zapatuan Durangaldea Uztabarritzen zirkuituaren bigarren ekinaldia hasiko da, Etxanon; Galarzagaz eta Sarriugartegaz batera, Onintza Enbeitak eta Sustrai Colinak abestuko dute; saioa 18:30ean hasiko da eta Beñat Romerok gidatuko du



BERTSOLARITZA • ARITZ MALDONADO
Durangaldeko Bertso Eskolak jarraitzen emango dio laz martxan ipinitako zirkuituari, lehenengo horrek izandako harrera errepikatu guran. Zapatuan hasiko da, Etxanon. Igor Galarza abadiñarrak eta Ander Elorriaga durangarrak ANBOTOn galderei erantzun diete.

Gogotsu zapatuan bigarren zirkuituari ekiteko?

Igor Galarza: Orokorrean gauza polita egin genuen sentsazioa dugu. Saio batzuetan besteetan baino jende gehiago batu zen, baina herrietako jendeak ondo erantzun zuen eta pozik gaude lehenengo zirkuituak izandako erantzunagaz.

Ander Elorriaga: Kontuan izan behar da iazkoan murrizketak egon zirela, aforoagaitik eta, orokorrean, birusagaitik; plaza batzuk topatzerakoan, beharbada ez genuen asmatu. Bigarren hau erakargarriagoa izango dela uste dut, bai gonbidatuengaitik, bai saio kopurua murriztu eta zirkuitu laburragoa izango delako. Zortzi asteko kontu bat izango da eta ez da luze egingo. Gainera, errazagoa ere izango da bertso eskolako kideak dinamikan sartzeko.

Lekuekin ez zenutela asmatu diotzue, baina zaletasuna zabaltzea zen helburuetariko bat? Leku berrietara heltzea?

A. E.: Bai, zirkuituko saioak Landa-ko Gunera eramateak, esaterako, ez du zentzurik. Oso gutxitan kantatutako edo ikusitako lekuetara eraman gura genituen saioak, erantzuna zein zen ikusteko.

Saio gutxiago, baina gonbidatu gehiago.

I.G.: Aurrekoagaz konparatuta, saio kopurua nabarmen gutxitu da. Baina kontuan hartu behar da, nik uste, Etxanon hasiko dugula zirkuitua, eta Garain itxi. Horixe du ona zirkuituak. Etxanon zale mota baten aurrean abestu dezakegu eta Elorrioko Gaztetxean beste mota baten aurrean. Baliteke asmatzea edo ez asmatzea, baina probatu egin behar da hori jakiteko.

Sareak osatzeko ere izango da interesgarria.

I.G.: Bai, eta esango nuke saio erakargarriagoak eskaintzea lortuko dugula horrela. Hamar bertsolari gonbidatu ditugu eta horietariko zazpi emakumezkoak dira. Euskal Herriko herrialde guztietako bertsolariak dira, maila onekoak, nahiz eta batzuek plaza askotan abestu ez.

Zelan ikusten duzue Durangaldeko Bertso Eskola?

I. G.: Ez gaude txarto. Zirkuitu hau antolatzea da horren adibidea, hala-koak ez dira lau eskugaz egiten eta. Hala ere, eskoletako ateak jotzen gabiltza, bertsozale gazteagoen bila, uste dugulako onuragarria litzatekeela jende gazteagoa batzea. Zirkuituak helburu hori lortzen lagunduko balu, itzela litzateke!

Gai librean

Isilaraziak VII 1937ko martxoak 31

Aste honetako zutaberako emakume ausart eta indartsu batzuen esaldi batzuk bildu ditut. Orain dela 85 urte bizi izan zutena kontatzen digutena. Baina, tamalez, gaurko esaldiak ere izan ahal ziren. Izan ere, akatsetik ikasteko kapazak ez garela ematen du.

- Begira, paperak, paperak! Paperak bai, bonbak ziren!

- Milizianoak kamioian gure albotik pasatu ziren, eta halako baten gure ondotik pasatu zenean gorpu bat jausi zen kamiotik, kranioa hustuta, arropa gorriarekin eta beso barik. Zarataka hasi ginen beldurraz. LUCIA GANBOA

- Ama astoarekin joan zan esnea saltzera (...) Ambiente txarra zegoen (...) Sirenak jotzen hasi ziren. Gu larri, noiz ikusiko ote ditugun ama eta aitte. Ta halako baten astoa ikusi genuen (...) Ama atzetik agertu zenean. Ai gure poza!



Garazi Arrizabalaga Cabrerizo
Durangoko Museoa

Hemen batutako testigantzak Arte eta Historia museoa ikusgai dagoen erakusketan ikusi eta enzun daitezke.

Gaurko esaldiak ere izan ahal ziren. Izan ere, akatsetatik ikasteko kapazak ez garela ematen du.

Amaren laguna, Josepa, ez zan inoiz ailegatu etxera. NATALIA URIBELARREA

- Jesuitetan sarraski handia egin zuten. Hildakoak bertan zegoen aroztegi batean sartzen zituzten eta beste batzuk kamioietan. (...) asko ezin ziren ezagutu ere egin, hain zeunden zaurituak. TERE-SA SETIÉN

- Hegazkinak ikusi genituen. Dena

dardarka hasi zen eta korrika atera ginen, gure burua gordetzeko. ROSARIO MENDIBE

- Gure lagun bat San Faustoko elizan zebilen behiekin, gure adina izango zuen, 11 edo 12 urte, eta hantxe hil zuten. MARIA ESPERANZA IGARZA.

- Nire aitak idien gurdia hartu zuen eta kalean zeuden hildakoak batu eta kanposantura eraman zituen. Beldurtuta zegoen eta Frantziara alde egin genuen. EDURNE GOROSARRI

- Bonbardaketan gu etxean geunden. (...) aitak Artabilara joateko esan zigun, hobeto egongo ginela. (...) kalera atera ginenak metrailatu egin gintuzten. DOMINGA ESTANKONA

Hemen bildu ditudan testigantzak Durangoko Arte eta Historia museoa ikusgai dagoen 'M31. 12 testigantza' erakusketan ikusi eta entzun ahal izango dituzue. Apirilaren 24ra arte ikusgai egongo da.

“Etapa polita izan daiteke ihesaldi bat harrapatzeko; seguru ahaleginduko garena”

Itzuliko etapa bat Mallabian amaituko da, datorren barikuan; Mikel Bizkarrak asteen probatu du etapa amaiera, lehenengoz



Mikel Bizkarrak
Etxegibel
Euskaltel - Euskadi
MAÑARIA | 1989

rrean jende asko denbora dezente galduta egongo da... Seguru ahaleginduko garena.

Eta berean Garaitik ere igaroko zarete. Aspaldian ez zinen handik igaroko lasterketa batean.

Ez ba! Kadeteetan eta gazte mailan nenbilenean bai, baina harratzeko ez naiz pasatu. Garaitik igo eta Goiuriatik jaitsiko gara. Polita izango da handik pasatzea ere.

“Dena da gogorra, ia ez dauka deskantsurik. Harbidea leuna da, baina baditu bere zailtasuna eta bere xarma”

Zu zeu zelan zaude? Murtziako Itzuliko erorikoa ahaztuta duzu?

Badut molestiaren bat, baina ez dit eragozten bizikletan dena emateko, eta alde horretatik ondo nago.

Kataluniako Itzulian protagonista izan zara ihesaldi batean baino gehiagotan. Gustura zaude egindako lanagaz?

Bai, lesioaren osteko lehenengo lasterketa izan da. Oso itzuli gogorra da. Lehenengo egunetan ez nengoen ondo, baina egunetik egunera hobera joan nintzen. Pare bat ihesalditan egoteko eta mendiko lider jartzeko aukera izan nuen. Azkenean ezin izan nuen maillot hori etxera ekarri, baina gustura amaitu nuen eta gogotsu nago datorrenarako.

Itzulira sasoian helduko zara?

Kataluniako Itzuliak falta zitzaidan puntu hori eman izana espero dut. Ondo errekuuperatzea da gakoa orain. Astebete dugu gorputzari buelta emateko eta lasterketa egun denak asimilatzeke.

TXIRRINDULARITZA • JOSEBA DERTEANO
Aurtengo Itzuliko bosgarren etapa Mallabian amaituko da. Herria behetik gora zeharkatu, eta txirrindulariak San Pedro ermitaren ondoan helmugaratuko dira. Aldats gogorak daude 500 metro horietan. Etapa osoaren antzera, amaiera ere "gogorra" dela eta alde txiki batzuk markatuko dituela uste du Bizkarrak. Euren armak erabiltza, ihesaldiak eta abar, gerra ematera irtengo dute Euskaltel-Euskadiko txirrindulariek.

Zer iruditzen zaizu Mallabiko etapa amaiera?

Gogorra. Euskal Herriko Itzulian beti sartzen dituzte horrelako 'tranpak': igoera labur eta gogor asko. Polita izango da. Seguru Mallabiko herri guztia hantxe egongo dena. Alde txiki batzuk ere markatuko direla uste dut. **Zein zati iruditu zaizu gogorrena?**

Dena da gogorra, ia ez dauka deskantsurik. Zati handi bat harbidean da. Harbidea leuna da, ez da Belgikako lasterketetan ikusten

denaren modukoa, baina baditu bere zailtasuna eta bere xarma.

Eta apurtuta helduko dela uste duzu?

Azken-aurreko etapa da eta aldats mordo bat dago helmuga koaren aurretik. Mallabira heldu aurretik Elgeta igoko dugu. Ez da igoera luzea, baina gogorra bai. Behin Karabieta ginetik igarota, Eibarretik Mallabira segituan heltzen zara. Etapa gogorra izango dela uste dut eta Mallabira talde txiki bat helduko dela buruan.

Nor ikusten duzu faborito etapa irabazteko?

Primo Roglic-entzat amaiera polita dela uste dut. Tira, amaiera guztiak dira onak berarentzat. Julian Alaphilippe-entzat ere oso aldats egokia da: laburra eta esplosiboa. Ondo heltzen bada, bera izango da faboritoa.

Mallabiko etapa begiz jota duzue taldean?

Etapa polita izan daiteke ihesaldi bat harrapatzeko. Bosgarren eguna izango da, sailkapen oroko-

Atxarteko maratoi erdia antolatu dute domekarako, lehenengoz, eta Euskadiko txapeldunak erabakiko ditu hainbat mailatan

MENDI LASTERKETA • J.D.

Sekulebedarra klubaren lanari eskerrak, lasterketa berri bat jaioko da domekan: Atxarteko maratoi erdia. Abadiñoako harrobi zaharrean hasi eta amaituko da lasterketa.

Euskadiko atletismo federazioaren eskariz sortu dute. Alde batetik, euskal selekzioko hautatzaileek beste lasterketa bat gura zuten Espainiako txapelketara begirako behin betiko zerrenda

itxi aurretik. Bestetik, Master kategorietan eta 18 eta 16 urtetik beherako mailatan Euskadiko trail txapelketa egongo da jokoa.

Ibilbidea, Mendiostatik

Maila guztiak kontuan hartuta, 100 bat parte hartzaile itxaroten dituzte. Afizionatuentzat ibilbide bi daude aukeran: 21 kilometrokoa eta 11koa. Biak 10:00etan hasiko dira. Hasieran, Atxartetik Urkiola alderantz joatea zen asmoa, baina

Aldundiak ez die baimenik eman horretarako, besteak beste saizuriaren kumaldi sasoia delako. Beraz, Mendiolarantz antolatu dute ibilbidea. Olondotik Larringanera igo eta Santikurutz ingurutik ibiliko dira.

Interneten bitartez gaur da izena emateko azken eguna, www.kirolprobak.com webgunean. Egun bertan ere apuntatu daiteke, proba hasi baino ordu erdi lehenagorarte.



Antolatzaileek 100 bat korrikalari batzea itxaroten dute.



Oscar Gilen burukada.

Amorebietari aukerak agortzen ari zaizkio eta garaipena behar du nahitaez

Amorebietak puntu behar larrian hartuko du Ibiza, zapatuan; 11 puntura du salbazioa

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Bigarren Mailari eusteko aukerak agortzen ari zaizkio Amorebietari. Bederatzi jardunaldi geratzen dira liga amaitzeko, hau da, 27 puntu daude jokoan eta salbazioa 11 puntura dago. Egoera horretan, funtsezkoa da puntuak hiruak batzen hastea, asteburu honetatik bertatik hasita. Zapatu arratsaldean Ibiza taldea hartuko du Lezaman.

Esatea egitea baino errazagoa da, jakina. Amorebietak zortzi jardunaldi daramatza irabazi barik. Urdinen azken garaipena urtarrikileko azken asteburukoa

da; orduan, 1-0 menderatu zuen Girona, sailkapeneko laugarrena. Harrezkero, lau puntu baino ez dituzte batu, beste hainbeste

Zaragozako kolpe gogorra izan zen, baina orduko kirol maila da garaipenerako bidea

berdinketari eskerrak, eta salbazioko postuak urrunduz joan dira apurka. Bolada txar horrek albo kalteak ere eragin ditu. Mar-

txoan, zuzendaritzak Iñigo Velez de Mendizabal entrenatzailea kargutik kentzea erabaki zuen eta Haritz Mujika bigarren entrenatzailearen eskura utzi zuen aginte makila, baina pieza aldaketa horrek ere ez du itxaroten zen erreakziorik ekarri, oraingoz.

Joan zen asteburuan, Amorebietak esku-eskura izan zuen garaipena Romaredan, baina Zaragozak 97. minutuan sartu zuen berdinketaren gola. Kolpe gogorra izan zen, baina partidua hartan erakutsitako kirol maila da garaipenerako bidea.

Iurretan tabernen arteko futbol 7 torneoa antolatu dute

Tabernek osatuko dituzte taldeak eta talde bakoitzak taberna bat ordezkatzeko du apirilaren 23ko txapelketan

FUTBOLA • J.D.

Iurretako Kirol Taldeak 'Iurretako Super Kopa' izeneko futbol 7 txapelketa antolatu du. Txapelketa honen berezitasuna da herriko tabernek osatuko dituztela taldeak, eta talde bakoitzak taberna bat ordezkatzeko duela. Honegaz hainbat helburu bete gura dute: "Herriko jendearen, Iurretako tabernen eta herriko futbol klubaren arteko adiskidetasun hartu-emanak sendotu gura ditugu", jaso dute txapelketako oinarrietan.

Beraz, tabernek osatuko dituzte taldeak. Adin txikiko jokalarik bi egon daitezke gehienez. Jokalariak Iurretan zein inguruko herrietan errolatutakoak izan daitezke.

Txapelketa apirilaren 23an jokatuko da, Larrakozelaian, 09:00etatik 14:00etara. Taldeen arteko zozketa apirilaren 8an egingo dute, 19:30ean, Iurretako Dantzari Plazan.

Talde irabazleak ordezkatu duen tabernan ikusgai ipiniko du garaikurra

Txapelketako talde irabazleak garaikur bat jasoko du eta ordezkatzeko duen tabernan ikusgai ipiniko du hurrengo edizioa jokatu bitartean. Tabernak garaikurra zaintzeko ardura izango du. Bigarren eta hirugarren postuan gertatzen diren taldeek domina bana jasoko dute.

Ariznabarreta zortzigarrenez garaile Sarako lasterketan

LASTERKETAK • J.D.

Lapurdiko Sara herrian Sara Korrika Trail mendi lasterketa lehiatu zuten asteburuan. 22 kilometroko lasterketan Oier Ariznabarreta izan zen onena. Korrikalari durangarrak zortzigarrenez jarraian irabazi du

lasterketa hori. 2013tik honako aldi guztietan —urte bian ez da antolatu, pandemiagaitik— korrikalari durangarra igo da podiumaren gorenera. Bere lasterketa kutuna da, sei bider irabazi duen Berakoagaz batera. Aurten, ohikoa baino maila handiagoa egon da Saran, Ander Iñarra eta Jan Margarit korrikalariak ere parte hartu dute eta. Baina bete-beteko lasterketa irten ziztaion durangarrari.

Jokaldia

Badator Korrika!

Gaur ezin nuen honako hau baino gehiago gustatzen zaidan gairik eduki: 22. Korrika hasi da! "Hitzekin" lelopean, 11 egunez, gau eta egun gelditu gabe, 2.000 kilometro baino gehiago egingo ditu euskararen alde eskuz esku joango den lekukoak. Eta baita haren inguruan joango diren milaka euskaldunek ere. Aurtengoa hogeita bigarrena da jada, 42 urte igaro dira lehen aldiz korrika ospatzen hasi zirenetik.

Amurrion hasi zen atzo, martxoaren 31n, eta apirilaren 10ean bukatuko da Donostian. Gaur, apirilaren 1ean, pasatu da Durangaldetik. Txikitatik pozik eta ilusioz beterik ospatu izan dugu Korrika 2 urterik behin. Musika, giroa, jendea, euskara... eta denok arineketan, nola ez zaigu gusta-



June Arceo Sarriugarte Korrikalaria

Bakoitza libre da nahi duen tokian hasi eta amaitzeko eta korrika baino... oinez egin daiteke hainbat lekutan

tuko ba? Euskaldunontzat egun bereziak eta politak izan ohi dira.


Normalean txapelketaz edo kirol profesionalez hitz egiten dut atal honetan, baina gaurkoan honako hau gai interesgarriagoa delakoan nago. Beti animatu nahi izaten dut jendea kirola egitera, lasterketa herrikoietan parte hartzera, eta oraingoan, beste helburu batekin bada ere, korrika egitera animatu nahi zaituztet gelditzen diren egun hauetan. Bakoitza libre da nahi duen lekuan has-

Jantzi ditzagun zapatilak euskararen alde, egin dezagun korrika gure herriaren alde

teko eta nahi duen lekuan amaitzeko, eta korrika baino... oinez egin daiteke hainbat lekutan. Beraz, ez dago aitzakiarik, jantzi ditzagun zapatilak euskararen alde, egin dezagun korrika gure herriaren alde, osatu ditzagun milaka kilometro denon artean eta lortu dezagun izan dadila aurreko 42 urteetan baino jendetsuagoa. Zeharkatu dezagun Euskal Herria denon pausoekekin, eta osatu ditzagun gure elkarriketak euskarazko "Hitzekin".

merkataritza gida sarean

anboto.org/gida



***Ezagutu eta erabili Durangaldeko
merkataritza gida euskaraz eta sarean!***

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtean 50€)

Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

· Anboto paperean + anboto.org-n: 100€
(Anboto txartela dutenentzat 90€)

· Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

· Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

BARIKUA, 1 - 09:00-09:00	DOMEKA, 3 - 09:00-09:00
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - Durango	GAZTELUMENDI J.A. ABASOLO 2 - DURANGO
MELERO, ROSa Mari San Pedro 31 - Zornotza	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00	ASTELEHENA 4 - 09:00-09:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	CAMPILLO MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO
IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	09:00-22:00
ZAPATUA, 2 - 09:00-09:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
NAVARRO Artekalea 6 - Durango	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
SARASKETA, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	MARTITZENA, 5 - 09:00-09:00
09:00-13:30	DE DIEGO INTXAURRONDO 22. - DURANGOBAZAANGO
CAMPILLO MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
GAZTELUMENDI J.A. ABASOLO 2 - DURANGO	09:00-22:00
DE DIEGO INTXAURRONDO 22. - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
SARRIA SASIKOA 17, DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
UNAMUNZAGA MURUETATORRE 2C - DURANGO	EGUAZTENA, 6 09:00-09:00
BAZAN DIAZ URIBARRI 5 - DURANGO	SAGASTIZABAL ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO
JAIO-ABENDIBAR ERREKAKALE 6. - ELORRIO	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
FARMAZIA MATIENA TRANABARREN 15. - ABADIÑO	09:00-22:00
MELERO, ROSA MARI SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
GOIRIA, MARI CARMEN SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	SARASNOTZA
GUTIERREZ, IBAN TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA	EGUENA, 7 - 09:00-09:00
RUIZ, JUAN EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA	MUGICA ANDRA MARIA 9 - DURANGO
09:00-14:00	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
IRIGOIEN BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA	09:00-22:00
09:00-22:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

ZORIONAK@ANBOTO.ORG

EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU

GOZOTEGI-OKINDEGIA



Zorionak, **Aiur(887. alea)**!

Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Ermodo, 11 DURANGO

Tel.: 946 201 663

gozatudurango@gmail.com

facebook: Gozatu Gozotegia



Zorionak, **osaba**! Domekan merezi dozun moduen ospatuko dogu.



Zorionak, **Abarkas**! Aspaldixen ez zara bisitan etorri. Hurrenguen tortillie zure kontu!

ZAPATUA 🌡️ 8° / 2° ☁️ DOMEKA 🌡️ 8° / 2° ☁️	ASTELEHENA 🌡️ 8° / 0° ☁️ MARTITZENA 🌡️ 12° / 2° ☁️	EGUAZTENA 🌡️ 13° / 4° ☁️ EGUENA 🌡️ 16° / 6° ☁️
--	--	--

hitz

artekalea 23, durango

946 810 776

liburudenda

info@hitzliburudenda.com

#salduenak



7[#]

ERAIKUNTZARAKO MATERIALA

Eider Rodriguez (Susa)



2[#]

IZURDEEN AURREKO BIZITZA

Kirmen Uribe (Susa)



3[#]

DENA AMETSA DEN IRUDIPENA

Leire Vargas (Elkar)



4[#]

FAITH

Lander Garro (Elkar)



5[#]

BASA

Miren Amuriza (Elkar)

"Ibilbidean zehar sortzen diren une bereziak kontatzen ahaleginduko naiz"

Ane Elordik 22. Korrikaren eguneroko jarraipena egingo du ANBOTOren jarraitzaileentzat; euskararen aldeko lasterketaren nondik norakoak podcast-en bitartez kontatuko ditu



Ane Elordi Alburquerque

22. Korrikaren prentsa lantaldekoa

ZORNOTZA | 1991

ZORNOTZA • AITZIBER BASAURI

Jendetza handiaren babesagaz ekin zion Korrikak bere ibilbideari, atzo, Amurriotik. Bart zeharkatu du Durangaldea, eta Gasteizera bidea hartu du. Ane Elordi zornotzarrak Korrikako prentsaren lantaldean biziko du lasterketa oraingoan. Igorreko euskaltegiaren irakaslea da eta furgonetan lantaldean ibilitakoa ere bada.

Euskal Herria zeharkatuko duen 22. Korrikaren furgonetara igoko zara. Oraingoan, prentsa lantaldeko kide lez. Zelan hartu duzu erronka?

Ardura handiagaz. Korrikako furgonetetako 14 orduko txanda zoro horiek egin gura ditut, baina aurtengo hau beste esperientzia

berri bat izango da. Orokorrean, hedabide guztiak koordinatzea izango da gure lana, eta sare sozialak eta webgunea elikatzea. Korrika munduari ahalik eta ondoen erakustea, horixe da gure lana. Alde horretatik, ardura handia da. Lantaldean 11 lagun gara eta Korrikako furgonetan gora eta behera ibiliko gara. Lasterketan, 19:00etan amaituko da gure eguna, euskaltegi batera lanera joateko. Lekukoa hartu aurretik atera daitekeen irudi hori gura dute hedabide guztiak sareak elikatzeke, eta, horretarako, kilometro askotan egongo gara gu. Baita irati konexioak lotzeko ere.

Askok gara Korrikaren irudi berezi hori lortu gura dugun komunikabideak.

Bai, eta orain arteko moduan jarraitzea ezinezkoa zen. Kameralari eta argazkilari guztiek gura dute Korrikako furgonetara igo, eta furgonetak dituen neurriak ditut. Oraingoan, Hamaika telebistak lasterketa osoa grabatuko du eta zuzeneko seinalea emateko aukera izango du. Gainera, furgonetako talde bakoitzean argazkilari bat joatea bermatuko da, lekuko eramale guztien argazkia izateko. Hedabide guztiei eskainiko zaizkie zuzeneko seinalea, bideoak eta argazkiak. EITBk ere zuzenean eskainiko du lasterketa. Apustu handia egin dugu sare sozialak elikatzeke.

ANBOTOren irakurleentzat eguneroko jarraipena egingo duzu pod-

cast bidez. Zer kontatuko diguzu kronika horietan?

Amurrioko lehenengo kilometroak bereziak izan dira guretzat, bertako AEK-ko irakasleek eraman dutelako lekukoa, eta lasterketak Durangaldean igaro du lehenengo gaua; gauak bereziak dira eta euren xarma dute, nahiz eta jende gutxi parte hartuko duela pentsa daitekeen. Lagun asko 03:00 aldera jaikiko da korrika egiteko, eta hori jakiteak irauli egiten dit barrua. Une horiek eta ibilbidean zehar sortzen diren une bereziak kontatzen ahaleginduko naiz.

Korrika munduari ahalik eta ondoen erakustea, horixe da gure lana. Alde horretatik, ardura handia da

Korrika lehenengo lerrotik ikusteko aukera ohore bat ere bada. Zein emozio sortzen dizu?

Ohorea da, bai. Askok betetzen nau eta askotan hunkitu naiz. Lehenengo lerro horretatik dena ikusten da. Korrikako furgoneta gidatzean, aurrean zain dagoen jendearen irribarrea, horixe da Korrikaren irudirik onena. Ezgaitasun bat zuen ume bat dut gogoan, zarategaz oso urduri ipintzen zena, eta furgonetako kide bati musika kentzea bururatu zitzaioala dut akorduan. Korrika isildu egin zen eta umeak oso pozik egin zuen lasterketa. Horrelakoak bizitzea ederra da. Umearen ama eskerrak ematera etorri zitzaigun bihar-munean.

Korrikak une eder asko eman dizu?

Askok! Gogoan dut Ibañetan elurra hasi zenekoa ere. Urte hartan lasterketak igaro behar zuen punturik altuena zen. Gauz izan zen, elurretan. Xanpaina, jaia, jendea... Norberaren herritik pasatzen denean ere berezia da, eta Bilboko Autonomia kalea jendez beterik ikustea ere itzela.

Eman gura zenukeen Korrikaren irudi edo titular bat.

Apirilaren 11n ere Korrikaren xarmak jarraitu egiten duela, euskara denon ahotan dagoela.

Lauhortza

Karolina Suarez Borges
Kazetaria



Argi ibili

Gerrarako modu berri bat probatu zuten Durangaldean, eta aitzindari triste bihurtu zuten eskualde oso bat. Izan ere, bertan egin zuten lehenengoz zibilak aurkako airezko erasoak, eta sistema hori bera erabili zuten geroago mundu bat txikitzeke.

85 urte iragan dira sarraski hartatik; 85 urte faxisten arteko kolaborazioaren eta esperimentazioaren biktimak egin gintuztenetik. Gainera, gerran garaile izan zirenen ondorengorik sortutako erregimenak ez digu, oraindik ere, bakerik ekarri. Horrexegatik, erreindikazio-oroitzapena behar du izan urtemuga honek.

Faxismoaren aurkako borrokan segitzen dugu antifaxistok. Merke atera zaizkie orduko hilketak, torturak, umiliazioak... Hori gutxi baltz, harro daudela erakusten dute behin eta berriro. Merke ateratzen jarraitzen dute eguneko eraso arrazistek, matxistek, homofoboek... Alegia, faxismoak atzo bezala gure artean jarraitzen du, eta goranzko joeran gainera.

Bada, memoria dugu ezinbesteko lanabes gaurkoa borrokatu eta biharkoa erakitzeke. Baina lan-tresnak eraginkorrak izan daitezkeen, faxismoaren kontzeptuarekin lotzen diren iruditegiak eta mezuak eguneratu behar ditugu.

Argi ibili behar dugu, eta burua erabili. Kapitalismoaren txotxongilo preziatua ere bada faxismoa eta horri aurre egin behar zaio. Esparrua zehaztu, eta alternatibak eskaini behar ditugu; axolagabekeriak ez goaz inora. Kapitalismoak faxismoaz egiten duen erabilera apartari, erantzun apartak; modu kolektibo eta partekatuan. Berezi, duela 85 urte gertatutakoak errepikatu ez daitezkeen.

Estetika gida

anboto



NUKLEO
ileapaindegia
946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

Ile-apaindegia



IUNIK
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491